



OSPITALEKO ALTAREN OSTERAKO GOMENDIOAK NEFROSTOMIAN

Hemen datorren informazioa lagungarria izango zaizu prozesuaren eboluzioa ezagutzeko.

Nefrostomia perkutanea interbentzio bat da, non kalibre txikiko kateter bat giltzurrun batean jartzen den (giltzurrun-pelbisean), gerrialdeko larruazaleko zulo txiki baten bidez, gernua kanporatu ahal izateko. Gernua etengabe aterako da, eta hankako poltsa batean jasoko da. Alta jasotzen duzunean erakutsiko zaizu nola erabili.

Nefrostomia itxita joanez gero, alta jasotzen duzunean azalduko dizugu zer egin.

Interbentzioaren ostean, jarraitu aholku hauei:

- Bizimodu normala egin dezakezu, baina ahalegin fisiko eta bortitzak saihestuta.
- Hartu likido ugari, gutxienez litro eta erdi (ez badago kontraindikaziorik), gernua etengabe sortzeko; izan ere, hori lagungarria da kateterraren iragazkortasunerako, baita infekzioak izateko eta kalkuluak eratzeko arrisku txikiagoa izateko ere.
- Sartu dietan C bitamina ugari duten elikagaiak (laranjak, limoiak, kiwiak eta abar), C bitaminak gernua azidotu eta gernu-infekzioa izateko arriskua apaltzen baitu.
- Jantzi arropa erosoak, eta saihestu kateterra estutu dezaketen jantziak.
- Higieneari dagokionez, nefrostomia jarri eta 48 ordura dutxatu zaitezke, baina ez bainatu. Nefrostomia finkatzeko apositua beti lehor eduki behar duzu. Apositua zikina edo desitsatsita badago, zoaz osasun-zentrora.
- Saihestu ukondotzeak, posible baita horren ondorioz gernurik ez irtetea.
- Hustu poltsa aldi berean behin.
- Hartu tenperatura egunean behin, hobe arratsaldean.
- Aldatu hankako poltsa egunero.
- Garbitu eskuak poltsa aldatu aurretik eta ostean. Gaueko gernua biltzeko, poltsa handiago bat emango zaizu ospitaleko alta jasotzen duzun egunean.

Zaindu beharreko seinaleak:

- 38°C-ko sukerra edo handiagoa izatea.
- Normala izan daiteke gernuan odola agertzea, baina etengabea bada edo gero eta gehiago irteten bada, medikuari kontsultatu behar diozu.
- Kateterra nahi gabe bere lekutik irtetea.
- Kateterra sartu den eremuan mina, hantura edo gorridura izatea.
- Gernuak kiratsa izatea.
- Kateterra sartu den lekuaren ingurutik gernua irtetea.
- Nefrostomia-poltsara gernurik ez iristea.